

Viaje por el país de los recuerdos

Toribio Echevarría

Todos los derechos reservados. Está publicación y los documentos gráficos contenidas en la misma, no pueden ser reproducidos, ni en todo ni en parte, ni registrados en, o transmitidos por un sistema de recuperación de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sin el permiso previo escrito del Ayuntamiento de Eibar y el autor del prólogo.

Eskubide guztiak gordeta daude. Liburu hau eta bertako argazki bat bera ere ezin da inon berragertu, ez zatika ez osorik. Liburu hau ezin da inon erregistratu eta bertan agertzen diren argazkiak zein idatziak ezin dira informazioa batzeko sistema batean jaso; inongo modutan eta inongo formatan. Hori egin nahi duenak, derrigorrezkoa du Eibarko udalaren baimen idatzia eta hitzaurrearen egilearena eskuetan izatea.

Ego Ibarra Batzordea – Comisión Ego Ibarra

Viaje por el país de los recuerdos:

Edizio paratzailea/ Editora: Ego Ibarra idazkaria / Secretaria Comisión Hitzaurrea/Prólogo: Asier Sarasua Aranberri
Argazkiak/Fotografías: Udal Artxiboa / Archivo Municipal
Azala/Portada: Urkidiko gurutzeta / Cruz de Urkidi

ISBN: 84-89696-38-1

DL/LG: SS-1314/04



Toribio Echevarría Ibarbia (1887-1968)

Blasquez

AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. Iñaki Arriola, Eibarko Alkatearen atarikoia <i>Preámbulo de Iñaki Arriola, Alcalde de Eibar</i>	9
II. Hitzaurrea: Asier Sarasua Aranberri	
Egilea eta bere herria	11
Toribio Etxebarriaren bizitza	19
Toribio Etxebarriaren pentsakera	35
Toribio Etxebarriaren lanak	43
III. <i>Viaje por el país de los recuerdos: 1968an</i> argitaratu zen alearen berrargitarapena <i>Reimpresión de la primera edición de 1968</i>	53
IV. Toribio Etxebarriaren bibliografia <i>Bibliografía de Toribio Etxebarria</i>	485



“Viaje por el país de los recuerdos” es el relato sobre un Eibar entrañable que, a pesar del tiempo y la distancia, se mantiene vivo y actual en la memoria de su autor.

Un Eibar pequeño en el que todos se conocían; una población de talante abierto en el que todos se respetaban y trataban; un pueblo vitalista que, a pesar de las dificultades, supo sacar adelante su economía; una ciudad avanzada en los temas sociales, impulsada por los ideales del socialismo, el sindicalismo y el cooperativismo; una isla de libertad y racionalidad en la que se hablaba y debatía libremente sobre lo divino y lo humano.

Los pasajes del libro, a través de las vivencias y relatos de su autor, nos retrotraen a una época de gran trascendencia en la historia de nuestra ciudad, nos permiten conocer el Eibar de entonces y entender mejor el Eibar actual.

Siendo un chaval, hace ya algunos años, tuve la oportunidad de leer la primera edición del año 1968 de este libro, y conservo un buen recuerdo de su lectura. Posteriormente, en 1990, el Ayuntamiento de Eibar impulsó la publicación de la segunda edición que desde hace mucho tiempo se encuentra agotada.

Con esta edición del “Viaje por el país de los recuerdos” de Toribio Echevarría, nuestra intención es que llegue a las nuevas generaciones, a las que recomiendo su lectura. Una lectura que contribuirá a que, en el futuro, se mantengan las relaciones humanas que están en la raíz de la forma de ser de los eibarreses.

IÑAKI ARRIOLA LÓPEZ
Alcalde de Eibar



“Viaje por el País de los recuerdos” liburua Eibar maitagarri baten inguruko kontakizuna dugu; egilearen oroimenean –denborak aurrera egin arren, idazlea herritik urrun egon arren– bizirik eta aurrean balu bezala mantentzen den herria.

Eibar txiki bat, non denak ezagun izan eta elkarri errespetua zion izaera zabaleko jendea zuena, hartuemanekoa; herri bizia eta, zailtasunak zailtasun, bere ekonomia aurrera ateratzen jakin izan zuena; sozialismoaren, sindikalismoaren eta kooperatibismoaren idealek hartara bultzatuta, aurreratua gizarte kontuetan; askatasunaren eta arrazionaltasunaren irla, mundukoak zein zerukoak izan, gauza guztiei buruz askatasun osoz jardun eta berba egiteko lekua.

Liburuaren pasarteek, egilearen bizipenei eta kontakizunei esker, gure herriaren historian garrantzi handia izan zuen sasoi batera garamatzate, orduko Eibar hura nolakoa zen jakiten eta gaur egunekoa hobeto ezagutzen laguntzen digutenak.

Mutil-koskorra nintzela –duela urte batzuk– liburu honen 1968ko aurreneko edizioa irakurtzeko aukera izan nuen eta irakurketa haren oroitzapen ona daukat. Handik urte askora, 1990ean, Eibarko udalak bigarren edizioa bultzatu zuen, aspaldidanik agortuta dagoena.

Toribio Etxebarriaren “Viaje por el país de los recuerdos” liburuak, oraingo edizio honekin, hirugarren aldiz ikusiko du argia, gure asmoa liburua gazte jendearen eskuetara heltzea izanik, gazteei benetan gomendatzen diedan liburua baita. Irakurketa mesedegarria etorkizunari begira, eibartarron izateko modu horren sustraietan dauden giza hartu-emanak gordetzen lagunduko duena.

IÑAKI ARRIOLA LÓPEZ
Eibarko Alkateak



EGILEA ETA BERE HERRIA

Toribio Etxebarriaren bizitza, pentsamoldea eta lana ulertu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu bere garaian eta herrian kokatzea. Eta ez dira ez edozelango garaia, ezta ere edozelango herria Toribiok ezagutu zituenak. Izan ere, XIX. eta XX. gizaldien arteko sasoi hura nahasia bezain interesgarria izan zen gizarte, politika, ekonomia eta kultura arloetan, gerrate arteko urte haietan, bigarren Karlistalditik 36ko Gerraterako tarte horretan eraiki baitziren Euskadi modernoaren zutabeak.

1876. urtean karlistaldia galdu ondoren, Hego Euskal Herria ahalmen politikorik gabe geratu zen. Horrekin batera, XVIII. mendeko krisialdi ekonomikoa gainditzea lortu zen. Burdingintzak, ehungintzak, papergintzak... gora egin zuten nabarmen. Baserri mundua, ostera, aurreko gizaldiko loraldiaren ostean, beherantza hasi zen. Ondorioa laster igarri zen gizartean: baserriak husten joan ziren, hiriak azkar handitzen, euskaldunek Ameriketara joan beharra ikusten zuten, eta industriaguneetan, ordea, kanpotarrak izugarri ugartu ziren. Langileria gune jakin batzuetan hasi zen pilatzen, industriaren baitara, hala nola Pasaian, Bilbon, Zumarragan eta Eibarren, herriak hiri bihurtuz.

Ekonomian izandako aldaketek gain, gizartean eta kulturaren ere berrikuntza itzelak gertatu ziren, euskal gizartearen itxura goitik behera eraldatuz. Etorkinak ugartzeari, beste aldaketa batzuk erantsi behar dizkiogu. Esaterako, komunikabideak indartu ziren, trena eta autoa agertu baitziren eta, ondorioz, jendeak leku batetik bestera mugitzeko eta toki zein bizimodu berriak ezagutzeko zuen aukera ikaragarri areagotu zen. Osasun zerbitzuek ere hobekuntza nabarmena izan zuten. Egunkariak eta aldizkariak ere indartu egin ziren, iritzi publikoa azaldu zen eta herri xehearen partaide-tza indartu. Matxinadak, grebak, errepublika... herriak gero eta



zeresan handiagoa dauka politikan eta gizartean. Gizarteak modernizatzen dihardu.

Euskararen egoerari dagokionez, ezin esan une goxoak bizi dituenik; euskararen beherakada nabarmena da, bai geografikoa, bai gizartean duen babesean. Hasieran, gehienbat Nafarroari eta Arabari egokitu zitzaien atzerakada; gizaldi hondarrean, berriz, Bizkaia da beherakada handiena nabaritzen duena. Gainera, euskal gizartean euskararen aurkako jarrerak ugaldtu egiten dira agintarien eta kultur-gizon esanguratsuen eskutik.

Une politiko, ekonomiko eta sozial horretan kokatu beharko dugu Toribio Etxebarria. Eta batez ere, garai haretako Eibarren.

Eibar XIX. mendean

Eibarko herriak, ia bere jaiotzatik, berezitasun handi bat izan du: herri industrialala izan da beti. Nekazal giroak ere izan du, jakina, gehienbat XIX. gizaldira arte, bere lekua, baina industria, burdin-olak, errotak, armagintza eta sal-erosketak izan dira Eibarko ekonomia, gizartea eta politika higiarazi dituztenak eta herriari bere izaera ezarri diotenak.

Eibarko industriaren ezaugarriarik nabarmenena armagintza zen XVI. gizaldiaz geroztik. Horrela izan zen 1794an frantsesek gure herria erre zuten arte; orduan askok Asturiasera jo behar izan zuen, Madrilgo gobernuak han zabaldu zituen bi lantegietara lanera. Baina XIX. mende erdialdetik aurrera hemengo tailerrak indarberritzen hasi ziren ostera. Horretan zeresan handia izan zuten hiru familiek. Hasteko, Zuloagatarrek. Kontadoreko jauregian ireki zuten, 1839. urtean, Eibarko lehenengo damaskinatu fabrika. Damaskinatua gure herrian bertan sortu zela dioenik ere bada, eta duda barik, damaskinatua izan da Eibar mundu osoan ezagun egin duena. Arte horrek Eibarrera diru franko ekarri zuen eta asko eta askorentzako lana. Zuloagatarrekin batera beste hainbat familia ere ezagun egin zen jarduera horri esker: Sarasketatarrak, Larrañagatarrak, Gisasolatarrak, Sarasuatarrak, Kareagatarrak...



Bestetik, Garatetarrak aipatu behar, armagintzaren bultzaile handiak. GAC fabrikaren sortzaileetako bat izan zen Manuel Garatek, adibidez, sei tiroko zilindrodun errebolberra eta pistoidun eskopeta asmatu zituen.

Azkenik, herriko “jauntxo” ziren Orbeatarrak. XIX. mende amaieran Eibarko arma-fabrika handiena izatearekin batera, beraien eskutik heldu ziren Euskal Herrira pulimentu-teknika berriak 1864an (ordura arte eskuz egiten zen) eta galbanoplastia-ren bitartez nikeladua egiteko teknikak (1866an)¹. Gainera, Orbeatarren fabrika ezarri zen lehendabizikoz argindarra Eibarren, 1890. urtean. Harrezkero dena aldatu zen herrian; Eibar aro modernoan sartu zen.

Armagintzaz bestalde, arazo sozialetan aurrerakoia izan delako ere ezaguna izan da Eibar. Garai horretan indar handia hartu zuten langileen elkartek, liberalismoak, beharginen sindikatuek, sozialismoak, errepublikazaletasunak... Hala ere, langile-mugimendu horrek ez zuen beste hiri batzuetan (besteak beste, Bilbon, Bartzelonan edo Madrilan) zuen tentsio eta zitaltasunik. Denen gainera, lana, “biharra”, zegoen eta beharrak elkartzen zituen alderdi guztietako eibartarrak. Berdin pentsatu ez arren, “eibartartasunak” elkartzen zituen herritar guztiak. Horretan zeresan handia izan zuen armagintza gutxika-gutxika familia giroan sortu zen ofizioa izatea. Lantegiak oso txikiak ziren, edozein etxetako atari, pegora edo ostetan ipinitako lau makinaz osatuak, familia mailakoak gehienetan eta behargin gutxikoak. XIX. gizaldira arte, lanbide bakoitzeko gremio bat zeukaten Eibarko beharginek, santu baten gidaritzapean elkar laguntzeko eratuak. Langile eta ugazabak elkartzen zituen.

XIX. gizaldi amaieran gauzak zertxobait aldatzen hasi ziren. Lantegi batzuk dexente handitu ziren eta Ingalaterratik zein Frantziatik heltzen ziren berriei jarraituz, langileen eskubideak babestuko zituen lehen erakundea eratu zen: Gremio Obreroa. Toribio Etxebarria mundura sortzearekin batera jaio zen hori ere, 1887. urtean.

¹ *Eibarko historiaren laburpena*. Pedro Zelaia, 1994.



Kontuan izan behar da, erakunde hori Eibarko ugazaba txikiei aurre egiteko baino, arma saltzaile handien gehiegikeriak geratzeko sortu zela. Herrian sekulako elkartasun izpiritua zegoen sasoi hartan eta 1902ra arte Gremio Obreroa izan zen langile mugimendu horren adierazle nagusia. Ugazabak, beharginak eta ikasleak zeuden bere baitan, baita baserritar batzuk ere. Makina bat lanbidetako lagunak biltzen zituen gainera elkarte horrek: baskulaginak, kainoiginak, kaxaginak, grabatzaileak, akabatzaileak... euren artean Antonio Iturrioz alkate eta baskulagina.

Urte horietan baina, gutxinaka bazen ere, herria bitan zatitzen hasi zen. Bigarren karlistaldian hasi zen banaketa hori mamitzen, eta mende amaierarako nabaria zen zatiketa. Alde batetik *goitarrak* zeuden, liberalak, errepublikazaleak, eliza kontuetan ez beroegiak. Buruzagi Antonio Iturrioz zuten. *Behetarrak*, ostera, kontserbadorea-goak ziren, *elixatarrak* eta, goitarren ustez, jauntxo erreakzionarioak. Euren gidaritzza Orbeatarren esku zegoen. Hauteskunde sasoiaren berdin samar ibiltzen ziren alderdi bietako ordezkariak, nahiz eta gehienetan alkatea goitarra izan. Gizaldi aldaketarekin batera, goitarren indarra handitzen joan zen eta behetarrena ahultzen.

Gogoan izan, Gremio Obreroak ugazabak zein beharginak elkartzen zituela, baina interes ezberdinak izaki, goitar-behetar ikamika handitzearekin batera bitan zatitu zen. Alde batetik, 1902an Beharginen Elkarteen Federazioa sortu zen. Egoitza Ifarkalean zeukan eta Pedro Chastang, Akilino Amuategi eta Jose Gisasola izan ziren bultzatzaileetako batzuk. Erdi isilpean eta zarata handirik atera gabe, baina sozialistak ziren erakunde horren sortzaile eta gidari. Bestetik, ugazabek *Sociedad Siderúrgica* osatu zuten 1905ean. Guzti horretan zeresan handia izango zuen, zalantzarik gabe, 1904. urteko krisialdiak. Arma-lantegiak lan barik zeuden, Madrilgo gobernuak armak atzerrian erosten zituen eta Eibarko fabrika nagusienak langileak kaleratzen hasi ziren. Ezin dugu ahaztu, XX. gizaldi hasierako lan-giro haretan armagintzak aldian-aldiko krisialdia bizi duela. Lana izan bada, baina oso gorabeheratsua da. Euren kontura ari diren armagin txikiek salneurriak ezin igota dihardute, ekoizle handiek eta saltzaileek ezartzen dizkieten prezioetan saldu beharra dutelako. Horrela sortuko zen *ekimen sozietarioa* deritzana. Alegia, langile haien batasuna helburu nagusi birekin:



salneurriei eustea eta euren lanaren ordaina ahalik eta bizkorren jasotzea. Armagintzaren krisialdia hasi da.

Udalaren zenbait jardunek (adibidez, langabezia gutxitzeko Eibar-Agiñaga errepeidea eraikitzea) eta, batez ere, 1914ko Mundu Gerrak (arma ekoizpena ikaragarri handitu zelako), zertxobait hobetu zuten egoera ekonomikoa, baina gerra amaitu eta laster, atzera berriz itzuli ziren laneza eta krisialdia. 1918 eta 1919 urteak oso larriak izan ziren eta egoera horren baitan agertu ziren sindikatuak Eibarren, UGT, Sindicato Catolico, ELA eta komunistena, besteak beste. Denak garai beretsuan sortuak izanda ere, UGT zen denen artean nagusi. Sozialisten babesean, urterik urte indartuz joan zen eta 1934ko datuen arabera, 1.400 bazkide zituen herrian. ELAko “solidarixuak” 935 ziren eta Sindikatu Katolikokoak 97. Aipatzekoa da sozialistek Eibarren egin zuten propaganda izugarria. Pablo Iglesias eta Indalecio Prieto behin baino gehiagotan izan ziren bertan; baita Leon Jouhaux sindikalari frantziarra ere. Jose Madinabeitia, sozialismoaren bultzatzaile handia, Tomas Meabe idazlea eta Valentin Hernández, “*La Lucha de Clases*” aldizkariaren zuzendaria ere bertan bizi izan ziren, azken hori desterratuta. Aipatzekoak, era berean, herriko seme ziren Akilino Amuategi, Jose Gisasola edota Martin Erkiaga sindikalistak.

Ikusi dugu egoera soziala eta ekonomikoa nolakoak ziren Toribioen herrian. Baina zer esan euskararen egoerari buruz? Lehenxeago aipatu bezala, euskararen egoera Euskal Herrian ez zen samurra. Beherakada larria jasaten ari zen, eta hizkuntza erabiltzearen, irakastearen eta lantzearen aurkako jazarpena ez zen ez nolana hiko. Ordenantza eta lege anitz agertu zen euskararen bizia murrizten zutenak, hasteko 1876ko konstituzioan azaltzen zen 75. artikulua: “*Unos mismos Códigos regirán en toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones que, por particulares circunstancias, determinen las Leyes.*”². Ondoren beste hamaika lege, arau eta ordenantza ere kaleratu ziren, denak ere euskararen erabilera mugatzen eta zigortzen zutenak³.

² 1876ko Konstituzioaren 75. artikulua.

³ *El libro negro del euskera*. Joan Mari Torrealdai, 1998.



Euskaldun gehienak oraindik ere euskal hiztun izan arren, agintarien jokabide horrek lortu zuen bere helburua. Euskararen etorkizunaren aurrean etsipena eta ardura eza, euskara gutxiatea eta autogorrotoa... Euskarak atzerakada itzela egin zuen Euskal Herrian sasoi honetan. Eibarren ostera, egoera oso ezberdina zen. *“Eibarren euskeraz erabiltzen dittugu autu guztiak, bai zerukuak bai lurrekuak”* diosku Toribio Etxebarriak. Horrek esaldiorrek esangura sakona dauka Eibarren eta euskararen arteko loturaz jabetzeko. Industria sustraiak botatzen ziharduen sasoi haretan, lan munduan euskara zen komunikazio-tresna ia bakarra. Lekukoek eta idazkiek argi lagatzen duten moduan, Eibar euskaraz bizi zen herria zen, euskaraz bizi zen herririk handiena. Bilbon, Baionan, Gasteizen eta Iruñean euskara azken arnasa bizitzen ari zen eta Donostian ere ordurako gaztelerak toki zabala zion jana euskarari. Eibar, ostera, 12.000-14.000 euskaldun inguruko herri-hiria zen.

Oraindik ere euskalduna-baserritarra-fededuna hirukotea erabat sustraiturik zegoen garaian, Eibarren industria zen nagusi eta poliki-poliki sozialismoa errotzen hasia zen. Horrek guztiorrek, bai ba, derrigorrez zalantzak eta susmo txarrak sortu behar hainbat euskaltzale eta abertzaleren artean. Nolatan euskara garbia erabili komunismoaz eta marxismoaz hitz egiteko? Eibarko euskarak makinatxo bat eraso izan zituen, bere ustezko “mordoilokeria” zela eta⁴.

Garai honetaz eta gai honen inguruan dihardugula, ezingo dugu alde batera utzi Bilbo inguruan euskararen aurka sortutako mugimendu indartsu eta sutua. Gehienbat Bilbok eta Eibarrek badituztelako berdintasun ugari. Sozialismoa dela, giro urbano-industrial dela, gizarte-ekimena dela... Baina euskara kontuetan oso ezberdinak dira. Eibar euskaldun den bitartean, Bilbon euskararen aurkako mugimendu latza sendotu zen. Fronte bi zituen erasoak. Alde batetik Unamuno idazle eta pentsalaria kulturaren izeanean euskara jipoituz⁵. Unamunoren amorrua ez zen, ordea, euskarak zuen etsai bakarra. Aitzitik, Unamuno bera baino zorro-

⁴ *Eibarko euskara. Gutxiespenaren historia*. Antxon Narbaiza, 1998.

⁵ Esate baterako: “Pero en el caso concreto del vascuence estoy profundamente convencido de que se pierde y que se pierde de pronto y sin remedio, y por su índole misma, por ser un idioma inepto para la cultura moderna.” El Imparcial egunkarian, 1901-X-7.



tzagoak dira euskarak Bilboko sozialisten aldetik jasotzen dituen takatekoak. Arrazoiak, jakina, beste batzuk dira. Sozialistentzat, hizkuntza ezberdinak eragozpen dira langileen borrokan, batasuna hausten baitute. Hizkuntza bakarra behar omen da kapitalismoari aurre egiteko. Lekuko, 1894an Bilbon jaio zen *Lucha de Clases* aldizkarian argitaratutako artikulua mordoxka⁶.

Eibartarren artean ere, ezin uka, praktizitatearen izenean hizkuntza bakar baten aldeko jarrera izan bazen; gizaseme guztiak elkar ulertzeko erabili beharreko ele baten beharra ikusten zuten. Toribiok berak frantsesa ikasi zuen, kultur-hizkuntza, eta berekin batera beste sozialista banaka batzuek, ahalegin handiz eta etekin gutxiarekin, esperantoa ikasi eta irakasteari ere ekin zioten, gizaki ororen arteko elkar ulertzea bilatzen zuen hizkuntza. Egoera horren ondorioz, Eibarko *Adelante* aldizkari sozialistan bilbotarren ildoari oratzen zioten artikulua batzuk argitaratu ziren, euskarari herri-hizkeraren estatus soila emanez⁷.

Dena dela, Eibarko egoera soziolinguistikoa eta euskararekiko jarrera oso ezberdinak ziren, eta horrelako adierazpenak egin zituztenek ere, ez zuten Bilbokoek bezala inoiz euskara gutxiesten eta ez zuten bere desagertzea aldarrikatzen. Unamunoren haritik tiraka artikulua bat idatzi zuen Pagnon eibartarrak, eta kultur-hizkuntza bat behar dela aldarrikatu ondoren, zera gaineratu zuen: “...*sencillamente cada cual en sus propias tierras o partes del mundo donde hayan nacido, por su capricho o gusto, puede conservar lo suyo.*”⁸. Beste adibide bat, 1918an izandako aldarrikapen batzuk⁹. Felipe Carreterok Bilbon nazionalistei aurre egiteko “*Viva España*” leloa sustatzen zuen bitartean, Eibarko *Juventudes Socialistaseko* kideek beste lelo hau zabaldu zuten herrian: *Gora Euskadi eta / gora mundu guztian / bere izardiakin / bizi dan gentia.*


⁶ Esate baterako: “Conservar una lengua regional cuando todo tiende a universalizarse es una de las mayores locuras (...) El vascuence es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente perece.” (1901)

⁷ *Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968)*. Antxon Narbaiza, 1999.

⁸ “*Adelante*” aldizkaria, Eibar, 1901, (Eibarko udal artxiboa).

⁹ *El socialismo y la izquierda vasca (1886-1994)*. Jesus Egiguren, 1994.





Untzaga plaza (1910 inguruan).

Badirudi, hortaz, Bilbotik iristen zen haize berritzaileari jaramonik egin gabe, gehienek ez zutela ama-hizkuntza atzean laga. *Centro Obrero*ko bazkideen artean euskaraz jarduten zuten sozialismoaz eta beste edozertaz, eta Etxebarriak berak *Viaje por el País de los Recuerdos* liburuan dioen moduan, sozialisten arteko batzar guztiak elebidun izaten ziren, kanpotik etorritakoek ere euskara ikasten zutelako Eibarrera iristean. Giro euskaldun horren lekuko, *Casa del Pueblo*a ireki zen egunean Akilino Amuategi “*Txikillana*” hizlari sutsuak bere hizketaldia euskara hutsez egin izana.

Gorabehera eta aldaketa handiko urteak izan ziren, beraz, Eibarrek eta Toribio Etxebarriak ezagutu zituztenak. Ideia berriak eta langile-mugimendu berriak jaio eta indartu ziren Euskal Herrian eta, berebiziko indarrez, Eibarren. Jakinminez eta kultur-gosez betetako Toribio Etxebarria gaztea ezin mutu eta gor geratu ingurunetik jasotzen zuen mugimendu horren aurrean. Toribioren pentsamendua, lana, ideologia eta euskararekiko jarrera, beraz, Eibar horretan kokatu eta horren arabera ulertu beharko ditugu. Izan ere, Eibar eta Toribio, Toribio eta Eibar, ezin sekula bikotea hautsi. Jaio eta erbesteratua izan arte, Eibarren bizi izan zituen ia urte guztiak. Bere izaera eta ideologia Eibarren eta Eibartik indartu ziren; ezin bata bestea barik aditu.



TORIBIO ETXEBARRIAREN BIZITZA

Toribio Etxebarria Ibarbia¹⁰ Txiriokaleko 6. etxean jaio zen, Eibar erdi-erdian, 1887ko maiatzaren 27an. Aita, Nicanor Etxebarria, eibartarra zuen, nahiz eta jatorriz familia Markinarra izan; hango baserri-lanak utzi eta armagintzaren usainera bildu zen bere aitajauna. Ama, Isabel Ibarbia, Gasteiztarra zen, nahiz eta aitona, Esteban Ibarbia, errezildarra izan. Esteban Gasteizera joan zen alhondigan lan egitera eta hantxe ezkondu zen Aramaioko neska batekin. Beraien alaba Isabel sarri etortzen zen Eibarrera, Txiriokaleko “*Txirrist*” tabernara, bere senide batzuegana, eta hantxe ezagutu zuen Nicanorrek bere emazte Isabel, Toribioren ama izango zena.

Txiriokaleko jaiotetxean bizi izan zen Toribio bere gaztaroan, eta hantxe jaio eta bizi izan ziren bere anai-arrebak ere. 1892ko erroldaren arabera¹¹, hauexek dira etxe horretako bizilagunak: Nicanor Echeverria e Irusta (1850eko urtarrilaren 10ean jaioa), eibartarra eta lanbidez grabatzailea, Isabel Ibarbia y Azcoaga (1853-10-05), eta beraien lau seme-alabak: Jesusa (1881-12-24), Aurelio (1883-09-25), Rafael (1885-10-24), eta Toribio (1887-04-27).

Toribio mutiko argala zen, itxura denez; txikia eta ezereza. Beharbada horregatik jaso zuen *Txindurri* gaitzizena, garai hartako Eibarren izena baino garrantzitsuagoa zen ezizena. Toribiok dienez, arrazoa beste bat izan zen: langilea zelako jarri omen zioten

¹⁰ Azpimarratzekoa da agiri ofizial guztietan “Echevarria” beharrean “Echeverria” azalduko zaigula beti, hala nola udal erroldetan, Toribioren ezkontagirian, bere alaben jaiotze agirietan, eta baita bere aita Nicanorren jaiotze agirian ere. Dena dela, Toribiok “Echevarria” aldaera erabiliko du, bai liburuak izenpetzeko, zein eskutitzak edo udaletxeko agiriak. Idazlearen aukera izan zen? Familiak lehenago aldatuko ote zuen abizena eta etxean “Echevarriarrak” zirela uste zuten, agirietan beste moldea agertu arren? Azterketa sakonagoa merezi du puntu honek.

¹¹ Eibarko Udal Artxiboa, B25.



Txindurri izen hori. Eskolara Malleatarren jauregira joan zen, San Andres parrokia parera, eta Zacarias Ramos “*Fosforerua*” izan zen bere irakaslea. Hala ere, garaiko mutiko gehienak bezala, oso gazterik sartu zen buru-belarri lan munduan. Hamaika urte zituenerako hasi zen aitari grabatzaile lanetan laguntzen, goizetan udal marrazki eskolan damaskinatua ikasten zuen bitartean.

Etxebarria jaio zen sasoiaren, bere jaioterria gehienbat armagintzan jarduten zuten esku-langilez osatutako herri industrialala zen. Diruaren hotsak herritarrak ez ezik hainbat baserritar ere bilduko ditu pistolagintzaren eta eskopetagintzaren baitara. Hamai-ka sailetan banaturik zegoen langintza txiki hura oso hurretik ezagutu zuen Etxebarriak. Jaio zen kalean bertan hainbat artisauk egiten zuen lan, eta behargin eta lanbide ezberdin horien artean igaro zituen bere aurreneko urteak. Horrek ere eragin nabaria izango du bere izaeran langile-mugimenduaren hazia ereiteko, txiki-txikitatik ezagutu baitzuen lantegi giroa. Izan ere, bera ere esku-langile gisa aritu zen sasoi batez. Aitaren senideak ere kanoin-gin ezagunak ziren herrian, irustatarrak; eta aitaren anaiak, Mateo Etxebarria “Urreduna” ezagunak, damaskinatugintzarako urre-haria sortzen zuen.

1901ean, sozialismoa herrian ematen ari zen lehen urratsekin batera, Toribioren bizitza aldatu egin zen. Berak artean 14 urte zituela, aita hil egin zen gaixotasun luze baten ondorioz, eta bere lekua Toribio gazteak hartu behar izan zuen lantegian. Ondoren amak Orbearren lantegian sartu nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Horregatik, ehiza-eskopetak montatzen hasi zen lantegi txiki batean, grabatzaile ikasketak amaitzen zituen bitartean.

Aita gazte hilda, amaren eragina oso handia izango da Toribiorengan, ziurrenik izaeraz eta jakinminez ere antzekoak direlako biak. Aipagarria da, esate baterako, erlijioak gazte-gaztetatik idazle eibartarrarengan duen garrantzia. Horretan Isabelek, bere amak, zeresan handia izan zuen eta erlijioaren bidetik zuzen eraman zuen txikitan Toribio. Ez du amak duen erlijioaren ikuspegi zorrotzik, baina gaztetatik jasotako heziketa hori ez du sekula bazterrera lagako. Marxismoa eta sozialismoa bere egiten dituenean, erlijioa zokoratu beharrean, uztartu egiten ditu munduaren ikus-



pegi biak, eta bere idazlan guztietan nabaritutako dugu idazlearen erlijio kutsua.

Amarengandik jasoko du, era berean, irakurzaletasuna. Amak jauntxo batzuen etxean egin zuen lan gazte zela, eta han sortuko zaio kulturarako eta irakurketarako zaletasuna. Gasteizen jaiotako amak, gainera, euskararik ez zuen egiten (ulertzen zuen arren), eta horren ondorioz familia-giro elebidunean hazi zen Toribio gaztea. Garai hartako eibar euskaldun elebakarrean, salbuespena zen Toribio. Horrek erraztu egin zion gaztelerazko liburuen irakurketa.

Kultura gosea asetzeko eta barneko harrari jaten emateko, oraindik oso gazte dela, 16 urte ingururekin, Bidebarrieta kalean zegoen Centro Obreroko liburutegira joaten hasiko da, lehendabizi oso lantzean behin, ondoren ia egunero, bertan dauden liburu guztiak irakurtzera. Garai hartan familia gehienetan ez zen liburu larregirik eta herriko liburutegi bakarria Centro Obrerokoa zenez (Casino de la Amistad-en bazen beste bat, baina bazkideentzat bakarrik), sozialisten egoitzara biltzen ziren jakinmina eta irakurzaletasuna zuten gehientsuenak. Oinarritzko irakaskuntza baino izan ez zuen mutil hark, bere kontura han eta hemen aurkitzen zituen liburuak irakurriz asetu zuen beregan sumatzen zuen kultura-egarria. Bere edozein lan gainbegiratzea aski da Etxebarriak irakurritako autore saila amaigabea dela ohartzeko: grekoak, klasiko guztiak, naturista frantsesak, Zola, Engels, Marx... eta batez ere gizartegaiak jorratzen zituzten ehundaka lan. Liburu horietan sendotu zitzaion Toribio gazteari amak piztutako jakin-mina eta kulturaren harra; liburutegi horretan sortu zitzaizkion, ondoren, bizi guztian zehar, bere idazlanetan landuko zituen kezka, ardura eta galderak.

Denetarik irakurtzen zuela ere, giza zientzien, soziologiaren eta erlijio gaien ingurukoak ziren hango liburu gehienak eta Toribiori ere horiek interesatzen zitzaizkion beste guztien gaineratik. Aipatzekoa, orain ere, erlijioak liburutegian zuen pisua, sozialisten zentroa zela kontuan badugu.

Hemezortzi urte zituenerako ia irakurrita zuen liburutegi osoa. Aldizkarien artean, berriz, *El Socialista* eta *El Liberal* irakurtzen zituen. Unibertsitatera joateko aukerarik ez, eta bere kultura-goseak



hezi zuen Toribio gaztea. Ahal zuen bezala, nahasi xamar eta harra-pataka bazen ere, kultura maila handia hartu zuen Etxebarriak oso gaztetatik. Sinesgaitza dirudi oinarrizko ikasketak bakarrik zituen gizon hark bere autodidaktismoari esker lortu zuen jakintza maila.

Kultura hartu behar hori, garaiko beste gazte askok ere bazuen. Kultura zen gizartean ikusten zituzten arazoak konpontzeko bidea, askatasuna lortzeko tresna. Eta gazte talde horretako asko *Juventudes Socialistas*en sartu ziren. Hasiara batean, ideologiak berak bultzatuta baino, neurri handi batean herrian zegoen giroak eta *Centro Obrero*ko liburutegian igarotako orduen eraginez. Baina laster bereganatu zuten denek sozialismoaren mamia. Toribio *Juventudes Socialistas*en buru izatera ere iritsi zen, eta gaztarotik sartu zen beharginen arazoetan: sindikatuetan, kooperatiben inguruko kontuetan, eta abarretan.

Irakurri ez ezik, hitzaldi guztietan ere hantxe izango da Etxebarria gaztea, Eibarren ia-ia egunerokoak ziren hitzaldietan aurreneko lerroan eserita, kanpotik etorritako hizlariak zer esango entzuteko prest: *Salón Crucetan*, *Salón Teatron*, *Centro Obreron*... Hizlari horien artean izango da lehenago ere aipatu dugun Pablo Iglesias sozialisten buru nagusia, eta baita Toribio gaztearengan eragin zuzena izango duten beste pertsonai handi batzuk ere: Jose Madinabeitia mediku oñatiarra eta Tomas Meabe bilbotarra¹².

Amarengandik kulturzaletasuna jaso bazuen, aitarengandik naturarekiko zaletasuna hartu zuen, Nicanor Etxeberria, garai haretako eibartar gehienak bezala, perretxikotalari amorratua baitzen, eta etxean animaliak hazten baitzituen. Bi zaletasun horiek, liburuak eta natura, etengabeko erreferentzia izango dira Toribioren bizitzan zehar, bai bere ibileretan, bai idazkietan. Gerrako kontuak kontatzen dizkigunean ere, behin eta berriro agertuko dira naturarekiko eta liburutegiekiko erreferentziak. Valentzian ihesi, Parisen erbesteratua, edo Caracase-ra iritsi berri, bere lan guztietan etengabeak dira naturaren eta liburuaren inguruko aipamenak.

¹² *Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968)*. Antxon Narbaiza, 1999.



Udaletxea eta Alfa

Urteek aurrera egin zuten, eta 1912an udalean hasi zen behar-reen, idazkaritzan laguntzaile eta urteko 1.250 pezetako (7,50 euro) soldatarekin. Soldata baino erakargarriagoa zen Toribioren-tzat bertako lana eta giroa, lantegietakoa baino gustukoago bai-tzuen politika giroa eta liburu eta idazki artean lan egitea. Izan ere, udaletxean sartu zenean, lehen 3-4 urteetan egun erdiko lan-kontratua zuen, eta horrek erakarri zuen gehienbat, arratsaldeak bere gauzak egiteko libre izatea.

1912ko apirilaren 27an aurkeztu zuen eskutitz baten bidez bere hautagaitza (hogeitabost urte betetzen zituen egun berean), eta beste hamairu herritarren artean aukeratu zuten. Toribio bera sozia-lista izateak zalaparta txikitxo bat ere sortu zuen izendapen horren inguruan, udaletxean sozialistak eta errepublikazaleak zirelako nagusi. Adierazgarria da, udaletxeko laguntzaile plazarako deialdia egin zenean, bere burua aurkeztu zuten guztien artean Toribio izan zela euskaraz zekiela aitortu zuen bakarra¹³. Bera izan zen, era bere-an, Eibarko udaleko artxibategian 1754ko “*Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoz*” idazkia aurkitu zuena, euskaraz gorde den ordenantzarik zaharrenetakoa eta gure herriko euskara azter-tzeko agiri antzinako eta garrantzitsuenetarikoa.

Udaletxean lanean hastearekin batera, Etxebarriaren bizi-tzak beste aldaketa nabarmen bat ere izan zuen: handik gutxira ezkondu zen Claudia Arrizabalaga Maguregi eibartarrarekin, 1914ko otsailaren 23an. Isasi kalean izan zuten etxebizitza eta hiru alaba izan zituzten. 1915ean jaio zen lehenengo alaba, Isabel, 1917an Felicitas eta 1921ean Leticia.

Ondorengo urteak ere nahasiak izan ziren Eibarren. 1920an, huelga handia izan zen gure herrian. Egoera ekonomiko txarra-ren ondorioz, eta sozialisten ekimenaz, beharginei kooperatiba bat sortzeko asmoa bururatu zitzaien. Greba bukatu eta bereha-la, Alfa lantegia hasi zen gorpuzten eta hazi horretatik jaio zen

¹³ *Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968)*. Antxon Narbaiza, 1999.





Toribio Etxebarria beharrean, Alfon. 1936ko apirilaren 8a.

Eibarren gizaldi horretan izan zen lantegirik handiena. Hasiera-ko zailtasunak gainditzeko, beharginek Toribiorengana jo zuten. Gerente lana eskaini zioten eta berak baietz esan. Sasoi luze batez bi lanetan jardun zuen: goizez udaletxean, arratsaldean lantegian.

Lehenengo urteetan trakets samar, baina lantegia apurka-apurka indartzen hasi zen. Hasiera batean armak egiten hasi ziren, baina sektorea jasaten ari zen egoera makala ikusita, Toribioren eta Benito Galarragaren eskutik goitik behera eraberritu zen Alfa. Armak utzi eta josteko makinak egiteari ekin zioten. 1935erako Espainiako josteko makina lantegi handiena zen eta mila familiatik gora bizi ziren berari esker¹⁴.

ALFA kooperatiba, halaber, eredu izango da hainbat gauzagtik. Aipagarriak dira sortaraziko zituen lan-harremanak, soldata berdinduak eta gainerako zerbitzuak (ekonomatoa, eskola, liburutegia, udalekua...), nahiz eta horietako asko gerra ostean sortutakoak izan, 40-50 hamarkadetan. Filosofia horretzek kutsu berri eta aurreratzailerak eskainiko dio lantegiari, eta horren guztiorren atzean Toribio Etxebarriaren eskua nabari da.

Urte horietan, sozialismoak ere gero eta indar handiagoa du Eibarren, eta Toribiok ere gero eta leku handiagoa Eibarko sozialisten artean. Sozialistak 1903an sartuko dira aurrenekoz udaletxean; 1920an gehiengo osoa lortu zuten; eta 1931. urtean, errepublikazaleekin batera, sekulako garaipena lortu zuten, botoen 69,4% lortuz (19 zinegotzitik 18). II Errepublikak iraun zuen urteetan ere, sozialistak izan ziren Eibarko indar nagusi. Eta guztien artean, besteak beste, Toribio da Eibarko sozialisten buruetako bat. Ez beharbada buru politiko nagusia, baina bai buru intelektuala eta herrian ezagunenetakoa. Toribio Etxebarria izan zen 1933ko azaroko hauteskundeetan botu gehien lortu zituen hautagaia¹⁵.

¹⁴ *Evolución de la industria armera en Eibar*. J.I. Paul Arzak, 1976.

¹⁵ *Epistolario: 1941-1946*. Indalecio Prieto, Toribio Echevarria [hitzaurrea, Juan Pablo Fusi], 1991.



Errepublika

Monarkia erortzean, 1931. urtetik aurrera, egoera berria eza-gutu zuten eibartarrek: hainbat urtez amestutako Errepublika garaia. Errepublikaren aldarrikapenean ere zeresan zuzena izan zuela dirudi. Oraindik ez da argitu nola eta zergatik aldarrikatu zen Errepublika Eibarren beste inon baino lehenago. Toribiok ere, beste kontu guztiak hain ondo eta zehatz azaltzen dituen arren, badirudi ez duela une historiko hori erabat azaltzeko gogorik¹⁶. Nork eman zuen Eibarren Errepublika aldarrikatzeko agindua? Zergatik? Buruak aginduta, ala bihotzak bultzatuta eman zuten urrats hori eibartarrek? Beharbada ez dugu sekula jakingo. Hala ere, garbi dago 1931ko apirilaren 14ko goizaldean udaletxean izandako batzarrean zeresan zuzena izan zuela Etxebarriak, eta ziu-rrenik, baita bezperan sozialisten eta errepublikazaleen artean izandako elkarrizketa eta erabakietan ere.

Espainian ezkerria agintzen jarri zelarrik, errepublikako aurre-neko gobernuan kargu politikoa eman zioten Etxebarriari: estatua-ren ordezkari izendatu zuten CAMPSAn (ondoren zuzendari ere izan zen, Gerra Zibilean), petrolio inportazioak antolatzeko. Indalecio Prieto Hazienda Ministroak eramango du Toribio Madrilgo Gobernura, 1931an; eibartarrak 44 urte ditu. Hiru urte igaroko ditu Madrilan, antza ez oso gustura, bere izaera apalagatik hiribu-ruko –eta batez ere gobernuko– bizimodura moldatu ezinda. Eskui-nak Errepublikaren buruzagitza hartu zuenean, bere kargutik kendu eta Eibarrera itzuliko da.

Eibarrera heldu eta gutxira, 1934ko urriaren 5ean, istilu latzak gertatu ziren Euskal Herriko zenbait herritan, eta latzenetarikoak, ziu-rrenik, Eibarren. Urriko Altxamendua izenez ezagutuko dugu. Eibarko sozialista eta komunista batzuek armak hartu eta Guardia Zibilaren kuartela bereganatzen ahalegindu ziren¹⁷. Lehen ere aipa-

¹⁶ *Viaje por el País de los Recuerdos* liburuan sasoi honen inguruko hainbat xehetasun eta datu eman arren, Eibarrek bizi izan duen une historiko garrantzitsuena nola gauzatu zen ez du argitzen idazleak. Udaletzeko eta alderdi sozialistako kide izanik, ez dirudi ezjakintasunagatik edo datu faltagatik izan zenik, benetan gertatutakoa ezkutatzearren baizik.

¹⁷ *La insurrección de octubre y la segunda república en Eibar*. J. Gutierrez, 2000.



tu dugunez, Toribioren izaera eta pentsakera politikoa ez ziren iraultzaileak; sozialisten artean utopikoena zen, teorikoena, elkarrizketaren aldekoa, bakezalea eta iraultzak indarrez egitearen aurkakoa. 1934ko altxamenduaren aurka zegoen, baina bera ere sozialista izanik, ez zuen beldurrik izan erantzunkizuna onartzeko orduan. Eibar-ko sozialisten buru intelektuala izanik, alderdikide gazte eta iraultzailegoek hartutako erabakien erantzule sentitzen zuen bere burua. Bera izan zen Guardia Zibilaren aurrean errendizioa aurkeztu zuena, eta bera ondorengo epaiketetan epairik gogorrenetakoa jaso zuena.

Toribiok berak hala dio *Metafísica a Urcola* liburuaren hitzaurrekoan:

“No sé si técnicamente hubo tal rebelión militar. No trataremos de defendernos diciendo que estuvimos por disciplina en la dudosa aventura, afrontando responsabilidades que a última hora trataron de eludir quienes nos metieron de hoz y coz en ella.”

Kontuak kontu, ia hamazazpi hilabete egin zituen Iruñeko San Kristobal presondegian. Garai gogorra, bere lanetan eragin handia izango duena. 1934ko urriaren 5etik 1936ko otsailaren 21era egon zen preso Iruñeko gartzelan, beste 143 eibartarrekin batera. Ia-ia iraultza edo altxamendu horretan parte hartu zuten guztiak, oso gutxi izan baitziren Frantziara alde egitea lortu zutenak. 16 hilabete eta erdi, eta denborarik gehiena epaiketaren zain, kalera irten baino aste batzuk lehenago jakin baitzuten epaia. 36ko hauteskundeetan alderdi ezker-tiarrek osatutako Fronte Popularrak hauteskundeak irabaztean amnistia orokorra eman zen, eta orduan itzuli ziren Eibarrera denak.

Gartzela eta askatasuna galtzea beti gogorra izan arren, Toribioren izaerak lagundu egin zion sasoi hura ahalik eta ongien jasaten. Toribiok irakurtzeko, idazteko eta, gehienbat, inguruan zituen eibartarrekin hitz egiteko eta pentsatzeko aukera ona aurkitu zuen Nafarroako hiriburuan. *“Metafísica a Urcola”* liburuan aipatzen duen moduan:

“Desde la campana matutina que a las seis nos mandaba levantar (...) hasta el toque de queda a las nueve (...) había harto tiempo para todo. (...) ... La prisión, dicho sea la verdad, nos deparó a mí y otros como yo, habiéndolo tomado con paciencia y hasta con buen humor, las horas más sosegadas de la vida.”



Gerra Zibila

1936ko udaberria latza izan zen gehienentzako: denen ahotan zegoen golpe militarra izan zitekeela, eta halaxe gertatu zen. Gerra hasi eta berehala, 36ko abuztu erdialdera, Madrildik deia jaso zuen irratiz: dena laga eta Espainiak Parisen zuen enbaxadara joan behar zuen, errusiarrekin hitz egin eta petrolio suministroari berrekiteko. Eskuinaren agintaldian etenda, Errepublikak derrigorrezkoa zuen errusiarren laguntza gerra irabazi nahi bazuen. Toribio izan zen Errepublikaren lehen hiru urteetan lan horretaz arduratu zena, eta Madrilgo gobernuak pentsatu zuen egokia izango zela berriro ere bera joatea Parisera, ezaguna zelako.

Huraxe izango zen Eibar ikusi zuen azkenaurreko eguna. Pariserantz irten zenean egun batzuetara itzultzea pentsatu arren, urteak beharko zituen berriro bere jaioterria ikusteko. Iraila hasierarako Madrilera joan zen, Paristik zuzenean, bere bizitzan hegazkinean egin zuen lehenengo hegaldian, eta liskarra bitartean Gobernu espainiarrarekin joan zen alde batetik bestera, lehenbizi Valentziara eta gero Bartzelonara. Handik Frantziako Paris, Bordele eta Tolosara. Eta azkenik, 1941etik aurrera, Venezuelako hiriburura, Caracasera. Egun batzuetarako Eibartik irten eta 28 urte behar izan zituen itzultzeko.

Frantziako hiriburuan Francoren aurkako lehenengo manifestazioak hastearekin batera irten zen Etxebarria bertatik, eta gerran bete-betean murgildurik zegoen Madrilera iritsi zen, 1936ko iraila amaieran. Indalecio Prietok eskatuta, Campsan hasi zen berriro lanean, eta lanbide horretan jarraitu zuen gerra osoan zehar, nahiz eta Banco de Españako ordezkari ere izan zen. Errusiarrek, petrolioaz gainera, beste makina bat gauza ere saltzen zizkieten espainolei, eta horiek guztiak kudeatzeko *Campsa-Gentibus* agentzia sortu zuen Hazienda Ministerioak. Eta arduradun nagusietako bat Toribio izan zen. Lehenengo Madrilen, eta ondoren, gerrak iraun zuen bitartean, bai Valentzian, eta bai Bartzelonan. Agentzia horretan zentralizatu ziren Espainiak zituen inportazio eta esportazio operazio guztiak.

Ia urtebete behar izan zuen Etxebarriak bere emaztea eta hiru alabak berriro ikusteko. 1937ko azaroan, Nazionalen tropen



bultzada ikusita, Errepublikaren Gobernua Valentziara joango da, eta orduan elkartu zen Etxebarria berriro familiarekin. Haiiek ere, denboraldi bat Bilbon egin ondoren, Valentzian zeuden, Frantzian barrena joanda.

Madrilgo gerrate-giroko bizimodu gogorrera ohituta, eta urtebete senide eta lagunak ikusi gabe egon ondoren, Valentziak opor-usaia zerion. Hasteko, urtebeteko egonezinenaren ostean berriro bere emaztea eta alabak ikusi ahal izan zituen. Bestalde, gerratehotsak urrun zeuden: lasaitasuna, nolabaiteko bakea, janari-arazorik ez... Bizimodu “normalagoa” egiteko aukera zegoen Mediterraneo bazterrean: zinera joan, beste eibartar batzuekin egon, mendira irten...

Valentzian zeudela, alabak ere beraien bizimodua berrekiten hasi ziren. Nagusiena, Isabel, Campsa-Gentibusen hasi zen aitarekin lanean; Felicitas erizain lanetan hasi zen, eta holaxe jarraitu zuen gero Bartzelonan eta Frantzian; txikiena, Leticia, oraindik ikasketak amaitzeke, bertako Lizeoan matrikulatu zen eta hizkuntzak ikasten hasi zen.

Urtebete inguru igaro zuten bertan, baina 1938ko udazkenean Bartzelonara alde egin behar izan zuten. Toribiok *Recordando la guerra* liburuan aitortzen duenez, une gogorra izan zen bereztat, eibartar lagun mordoa laga behar izan zuelako Valentzian, Buñoleko eta Alberiqueko arma-lantegietan lanean, bera Kataluniara ihesi zihoan bitartean. Azaroa zen Bartzelonara heldu zirenean, Gobernu guztiarekin batera. Lau hilabete egin zituzten bertan, Campsako buruetako batek Urquinaona kalean utzitako etxe batean. Gerratea amaitzear zegoen. Oraindik irabazteko itxaropena zuten batzuek, baina ordurako nabarmena zen Francoren gudalosteak Espainia gehiena bere esku zuela eta kanpoko laguntzarik gabe Errepublikak ez zuela irtenbiderik. Hilabete gutxiko kontua izango zen Bartzelona eta Madril ere nazionalen esku geratzea.

Bartzelonan gerra sasoian pasatako 4 hilabeteak oso gogorrak izan ziren, eta gehiago jasan ezinik, bere emazte Claudia Parisera joan zen alaba gazteenarekin, Leticiarekin. Ordurako, Isabel ere Frantzian zen Campsak bertan zituen bulegoetan. Aita,



Toribio, eta bigarren alaba, Felicitas, Bartzelonan geratu ziren lanean. Toribio Campsa-Gentibus agentziako betebeharreran, eta Felicitas bere erizain lanean. Hortik gutxira, baina, ezkondu eta Frantziako Tolosara joan zen bizi izatera. Toribio bakarrik geratu zen. Bera, eta bere liburuak. Gerrate sasoiko ibileretan biltzen joan zen dozenaka liburuak. Izan ere, gerrateak uzten zizkion tarreetan, hainbat liburu erosteko eta batzeko aukera izan zuen idazleak, gehienbat Madrilgo eta Valentziako liburudenda zaharretan aurkitutako altxorak, eta Bartzelonara orduko, ehundaka liburuko bilduma lortu zuen. Zoritxarrez, hantxe geratu behar izan ziren denak. Gerratea eta kultura gutxitan datoz eskua emanda, eta Bartzelonatik ihes egiteko orduan, bertan laga behar izan zituen liburu guztiak.

Francoren guda-lostea gero eta hurrago zegoen, eta Gobernuak Figueresko gaztelu batean bildu zen. 1939ko urtarrila zen. Eta otsailaren 7-8 bitartean, Figueres atzean laga, eta Frantziara alde egin zuen, milaka herritarrekin batera.

Kontzentrazio esparru batean sartzea osta-osta sahiestu ondoren, Parisera heldu zen, eta hantxe bildu zen bere familiarekin. Claudia eta bere alaba bi, Isabel eta Leticia, Saint Lazare tren-geltoki alboan bizi ziren ordurako, baina gerrateko errefuxiatuen paper-kontuak zirela eta, Toribiok ez zuen Parisen egoteko baimenik lortu, eta berari Melunen bizi izatea egokitu zitzaion, Paristik 30 kilometro ingurura.

Campsa-Gentibus agentziak oraindik lanean jarraitu zuen hila-bete batzuetan, baina gero itxi egin zuten eta Toribio lan barik geratu zen. Idazten eta irakurtzen igaro zituen asteak eta asteak, eta bere bizi guztian zehar gogoratuko zuen Melunen igarotako denboraldia: irakurtzen eta naturaz gozatzeko. Bere liburuetako batzuk ere Melunen bertan idatzi edo zuzendu zituen, besteak beste, *Recordando la guerra* eta *Tres ensayos*.

Bien bitartean JARE sortu zen, *Junta de Auxilio a los Republicanos Españoles*, eta 1939ko abuztuan deitu zioten bertan lan egitera. Melun utzi eta Parisera joan zen, emaztearekin eta Leticiakin, Caballerie kaleko etxe batera, Euskal Gobernuako kide zen Juan de los Toyos bizi zen etxe berera.





Toribio Etxebarriaren jaiotetxea, Eibarko Txirio kalean.



Europako gerratea eta erbetea

Hiru urtez Espainiako gerratetik ihesi ibili ondoren, Europa-koak ere harrapatu zituen; 1940ko ekainan alemaniarrek Paris hartu zuten. Etxebarriak idatziko duenez, kolpe gogorra izan zen hirugarrengez etxea galtzea. Lehenengo, Eibarko etxea galtzea, bere bizitza guztian lortutakoa Molaren guda-lostearen esku uztea; bigarrena, gerrateko 2-3 urteetan zehar bildutako liburu guztiak Bartzelonan laga behar izatea; eta hirugarrena, bizitza berriari ekitekotan zirela, beste gerrate batek harrapatu eta Parisko etxea ere beste guda-loste batek jaten ziola ikustea.

Eta berriro ere alde egin behar. Paristik Bordelera joan behar izan zuten, milaka frantziarrekin batera; Girondako hiriburuan egin zuten bat, Frantziako leku ezberdinetatik ihesi zetozen milaka eta milaka lagunek. 1940ko ekainaren 12a zen. Handik Tolosara jo zuten, edo hobeto esanda, 20 kilometro ingurura dagoen Aussonne herrixkara. Hantxe egin zituzten, baserri batean, beste pare bat hila-bete. Neurri batean lasai igarotako aldia, baina bestetik, urduritasun handikoa, Frantziatik Hegoamerikara joateko baimenaren eta itsasuntziaren zain egon zirelako. Aukera noiz etorriko zain.

Ordurako sortua zuen Errepublikak SERE (*Servicio de evacuación de refugiados españoles*). Horren bitartez joan ziren Venezuelara Isabel eta Felicitas, bere alaba nagusiak, biak ezkondata. Lehenengo zuzenean, eta bigarrena denboraldi bat Santo Domingon igaro ondoren. Isabelen laguntza ezinbestekoa izango zen Toribio eta Claudiarentzat, berak bidali baitzien gurasoei Frantziatik irteteko beharrezko izango zuten bisatua. Mexikora joateko aukera ere izan zuten, JAREk eskaintzen zion baimenari esker, baina azkenean Venezuelako egoera politikoa bareagoa zela pentsatuta, hara joatea erabaki zuen. Idazleak berak onartuko zuen moduan, agian ez zen aukeraketa egokiena izan: Caracasen bizi izandako 25 urteetan hiru iraultza ezagutu zituen, Mexikon demokrazia sendotu eta egoera ekonomikoa izugarri egonkortu zen bitartean.

1941eko martxoaren 24an irten ziren Marsellatik, *Paul Lemerle* itsasuntzian, gerrak laga zizkien ondasun apurrak maleta bitan zera-matzatela. Bizitza erdia lagatzen zuten atzean. Eta baita klabe sekretu itxurako paper batzuk ere: Eibarko hizkera biltzen zuten makina



bat fitxa eta paper txiki; azken hileetan batutako fitxa lexikogafikoa, Eibarko hizkera jasotzeko egindako lehenengo saiakera. Alemanek klabe sekreturen bat zirela pentsa zezaketela uste izan zuen Etxebarriak, eta askatasunerako atea itxi aurretik, Marsellako hotelean apurtu zituen den-denak, badaezpada. Izan ere, Bordelen eta Tolosan bizi izan zen sasoi horretan hasi zen Toribio euskararen inguruko liburuak irakurtzen. Liburutegi ederrak zeuden batean zein bestean, eta hantxe, erbesteuraturik eta herriminak bultzaturik hasi zen lehenengo liburuak irakurtzen, aurreneko idatziak egiten, Eibarko aditza batzen eta bere hiztegiko lehenengo fitxak betetzen. Venezuelara heldu ondoren, berriro hasi behar izan zuen lan hori.

Caracaserako bidaiak hiru hilabete eta erdi iraun zuen. Apirilak 20an heldu ziren Martinikara, Etxebarria 54 urte betetzekotan zela. Bertan hilabete inguru pasatu ondoren, maiatzaren 18an Santo Domingorantz abiatu ziren, eta Ciudad Trujillo atzean lagata, uztaillaren hasieran helduko dira Venezuelara: hilaren 5ean Curaçaoa eta 7an Caracasera. Hortxe amaituko da bost urteko ibilbidea, larrialdiz betetako bidaiak nekagarria.

Hasiera batean liburudenda bat ipintzeko asmoa izan zuen. Gerora damutu bazen ere, une horretan pentsatu zuen irakurle bazela, baina saltzaile ez, eta ideia baztertu egin zuen. Lehenengo urteetan argitaletxe bateko gerente eta Legazio Britainiarreko prentsa-arduraduna izan zen, eta 1945etik aurrera seguru-konpainia bateko kontuak eraman zituen. Baina batez ere, irakurtzen, idazten eta pasiatzen jarraitu zuen Caracasen bizi izan zen garai guztian. Umetan gurasoengandik jaso zituen zaletasunak bizi guztian zehar gorde zituen Etxebarriak.

Ez zuen inoiz eten Eibarrekin eta Euskal Herriarekin zuen lokarria, eta zailtasun guztiak gaindituz, eskutitz bidez, Eibarko hainbat jenderekin izan zuen hartu-emanak: erbesteratutako hainbat alderdikiderek, Eibarren laga zituen lagun eta ezagun guztiekin, eta euskal kulturako pertsonai nagusienekin: Juan San Martin, Karlos Santamaria, Koldo Mitxelena, Andima Ibiñagabeitia, Martin Ugalde, Jokin Zaitegi, Jesus Mari Leizaola eta abarrekin.

1959an itzuli zen lehenbizikoz Europara: Ingalaterrara, bilobek ingelesa ikasten zihardutelako. Handik Euskal Herrira etorri zen.



baina mugaz bestaldera, Hendaiara. Hainbat eibartarren bisita jaso zuen bertan. Urte batzuk geroago, 1964an lortu zuen azkenean Eibarrera itzultzea, 1936ko abuztuko irrati-dei hartatik ia 30 urte igaro ondoren. Eta sekulako ongietorria egin zioten eibartarrek. Toribioren lana aztertu duten guztien artean, bere lana baino gehiago Toribioren izaera da azpimarratzen dena, gizon langilea, kultura handikoa, buru argikoa, zintzoa, leiala, apala eta zuzena izatea¹⁸. Beharbada horrela ulertuko dugu itzulera horretan eibartarrek –alderdi batekoek zein bestekoek– egin zioten ongietorri beroa.

1968ko apirilaren 18an hil zen Caracasen, beste hainbatek bezala bere azken ametsa bete ezinda: bere jaioterrira itzultzea.

¹⁸ Adibiderako, hona hemen iritzi batzuk:

“Gerra aurrean, haurtzaroan, ezagutzen nuen baina ez nuen harremanik. Etxean izen ona zuen: errespetu handia zioten aita-amek bere gizontasunagatik eta bere izateagatik. Bere ondradutasuna aparta zen”. Juan San Martin, Jakin, 1998 (108): 67-116.

“A pesar de que nunca tuve ocasión de hablar con él, ni siquiera de verle –mi trato con don Toribio Echevarría fue sólo epistolar y aun esto de una manera breve, aunque muy efectiva por ambas partes– yo sentía veneración hacia él. (...) Sin saber apenas nada de su vida, yo me sentí amigo espiritual.” Carlos Santamaria, Diario Vasco, 1968/04/28.

“Etxebarriaren izaera eta zaletasunei buruz esan dezakegu gizon zuhurra eta orekatua izan genuela, bere bizitzaren aldirik larrienetan frogatu zigun bezala.” Antxon Narbaiza, 1999.



TORIBIOREN PENTSAKERA

Politikaz eta filosofiaz

Toribio Etxebarria gaztetandik hasiko da arduratzen gizartean nabaritzen dituen injustiziekin. Batez ere, lan mundukoekin. Garai hartan jaio berri den sozialismoak aurrikusten duen munduaren ikuspuntuari bidezkoa ez ezik, zuzen eta egiazkoena ere baderitzo. Gorago esan dugun moduan, *Centro Obreron*, *Casa del Pueblon* eta *Salon Teatron* izan ohi ziren hitzaldietan izango da Etxebarria, kanpoko hizlariak zer dioten ezagutzen eta ikasten. Oso gazterik, hau-tua egina du: ondorengo urteotan sendotzen joango den ideologia sozialista eta gizatiarraren harra bere barruan dauka.

Baina Toribio ez zen sozialista “arrunta”. Bere libururik gogokoena Biblia izateak nahiko argi adierazten digu pertsonaia ezohikoa zela. Idatzietan dioenez, sozialismoa Biblian irakurtzen zituen hainbat ideia aurrera eramateko bide onena iruditzen zitzaion: elkar maitatu, lagun hurkoari lagundu, injustiziak salatu, askatasuna eta berdintasuna indartu, behartsuak defendatu... Biblian zein sozialisten manualetan aurkitzen zituen antzeko hitzak, nonbait. Elkarren aurkako idealak barik, elkar uztartu zitezkeen ‘erlijioak’ ziren bata zein bestea. Horretan izango zuten bai zeresana amaren kristautasun sutsuak batetik, eta erbesteren bizi beharrak bestetik. Herritik kanpo egon beharra norbana-koaren askatasunaren aurkako eraso gogorra da eta Etxebarria, samina gainditzeko edo, Biblian eta klasikoen irakurketan murgilduko da.

Sozialismoa ulertzeko orduan, berriz, Eibarko giro lasaiak, hau da, tentsio eta tira-bira handiegirik gabeak, Toribio politikoaren pentsamoldean nahiko eragin izan zuela pentsa daiteke¹⁹. Sozialisten

¹⁹ *El socialismo y la izquierda vasca (1886-1994)*. Jesus Egiguren, 1994.



artean moderatuen artekoa zen, Prietoren pentsakera berekoa, beti ere muturreko ideia eta ekintzen aurkakoa. Gerrate garaian ere, behin baino gehiagotan salatu zituen errepublikazaleen gehiegikeriak. Halakoa zen, oro har, Eibarko sozialista gehienen pentsamoldea, eta horretan indar berezia izan zuen, zalantza barik, Toribio Etxebarria beraren pentsakerak eta izaerak.

Bestalde, Euskal Herriaz zer pentsatzen zuen ere utzi zigun liburuxka batean, *La Liga de las Naciones y el Problema Vasco* (1918). Gai horren inguruan ere berezia da Eibarko idazlea: abertzale-euskaltzale lotura eten egiten du. Bera euskaltzalea da, baina ez ordea abertzale eta Espainiaren osotasuna defendatzen du. Hala ere, sozialista gehienen ideiekin ere ez zetorren guztiz bat, iberiar federazio baten barruan ikusten zuelako Euskal Herria.

Etxebarriaren izaera ulertzeko, argigarria da 1925 inguruan Eibarko Kruzeta Saloian gertatukoa. Abertzaleek hitzaldi bat antolatu zuten Estazio kaleko antzokian, eta Jesus Mari Leizaola zen hizlarietako bat. Entzuleak eserlekuetan jartzen hasi zirenean, alboan zuen Don Poli Larrañaga abadeak aipatu omen zion: *“lehenengo ilara horretan dagoen betaurrekodun hori Eibarko sozialisten burua da.”* Garai hartan arruntak ziren alderdi ezberdinetako kideen arteko liskarrak, eta Leizaola kezkatu egin zela ikustean, berehala gaineratu zion Don Polik lasai egoteko, zalapartaren bat sortzekotan ere, Toribio bera izango zela bere taldekideak isilaraziko zituen. Hitzaldia amaitu ostean ezagutu zuen Leizaolak Etxebarria, eta harrezkero oso lagun izan ziren, lehenengo Euskal Herrian, eta ondoren erbestean.

Toribioren pentsamendua aztertzean, beraz, ez da nahikoa bere sozialismoa aztertzea. Beti ere hiru ardatzek higitzen dute bere pentsamendua: lanak, balore etikoek eta Euskal Herriarekiko (edo hobeto esanda, Eibarrekiko eta euskararekiko) lotura estuak. Etxebarriaz dihardugun arren, antzekoa pentsa daiteke garaikide izan zituen beste hainbeste eibartarrez. Izan ere, Etxebarriaren pentsamendua eta izaera ez ote garaikide izan zituen herrikide gehienena? Zintzo jokatu, ‘biharra’ jo ta ke egin, eta elkarbizitzarako euskara erabili.



Idea horiek bere liburuetan aurkituko ditugu. Erljioari, etikari eta zalantza filosofikoei buruzko liburuak hiru izan zituen, baina bere pentsamenduaren laburpentzat jo daitekeen liburua *Tres ensayos (Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración)* izenekoa da; edozein pertsonaren oinarri izan behar duten hiru zutabeak horiek direla aipatzen digu idazleak, gaztetatik bere barruan mamituz joan ziren hirurak: (1) lana; (2) amarengandik jaso eta ondoren *Centro Obreron* lantzen eta asetzen joan zen kultur-zale-tasuna eta jakinmina; eta (3) Jaungoikoarekiko eta lagun hurkoarekiko maitasuna.


Eibar eta Eibarko euskara

Toribioren pentsamenduaren ardatzetako bat Eibar eta Eibarko euskara dira. Eta horrekin batera herrimina; Euskal Herria eta Eibar laga beharrak sortzen dion barne oinazea. Eibarrekiko lotura hainbat libururen eta idazkiren bitartez bideratzeaz gain, euskararekiko zuen arduraz ere bideratu zuen. Eibarko euskara izan zuen ikerketa-gai eta baita liburu bat idazteko tresna ere.

Lehen aipatu bezala, euskararen aurkako erasoz betetako sasoi bizi izan zuen Toribiok gaztaroan. Agintari eta pentsalariak (Unamunok, Barojak...) zein ezkertiarrek (sozialista anitzek) amorru biziz ekin zioten euskara erasotzeari. Giro hartan bizi izan zituen, beraz, Etxebarriak bere nortasuna finkatu zuten urteak. Esan dezagun: Eibar euskalduna zen erabat, baina behar-bada ez euskaltzalea. Toribio, ordea, euskaldun izatearekin batera, euskaltzale ere izan bada. Euskara bultzatu, landu eta maite egin du. Egia da Etxebarriak gutxitan onartzen diola euskarari kultura estatusa, ez du euskararen aldeko defentsa sutsurik egiten, baina garai bereko ustezko beste euskaltzale batzuen jokarea ikusirik, ezin da uka Etxeberriak hizkuntzari dion maitasuna. Narbaizak²⁰ dioen moduan, Toribiok fedea bere lanen bitartez ederki frogatua zuen.

²⁰ Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968). Antxon Narbaiza, 1999.





“Editorial Pablo Iglesias” en 1966. urtean kaleratu zen liburuaren azala.



Ibiltarixanak liburuan behin eta berriz agertuko da euskararen gaia, eta maitasunez arituko da beti idazlea. Har dezagun adibiderako, 156. orrialdeko pasarte hau:

*“Zer, ai, gure aldietako
mendi ederren illaria,
zer sagasti kerizatsuak,
zer baserrixen bakia,
zer gure lur zorioneko
guk maitte dogun guztia,
euskeraz ez izatera
ango alkarren aitzia?”*

*Arno, Oiz et’ Anboto;
Udalaitz t’Aizgorria;
Elosu, Izarraitz, Ernio,
Aralar da Larrunarria,
Zer biotz-ikara izen onek
Juanda balitz euskeria?”*

*Beizabal eta Eguarbitza,
Otola eta Olerria;
Mandiola eta Gorosta,
Arrate eta Akondia.
Loixola, Azittaiñ, Aixa,
eta Kiñarra ballia,
zeren itxura alde onek
an balitza erderia,
eta orde, aintzakotzat b’ez
gurasuen euskeria?”*

“Guk euskeraz eztakigu” entzuten diezu besterik ez dakitenei, nagusienei. Gauza jakina da automespretxu eta konplexuak izan ohi direla hizkuntzaren galeraren eragile nagusiak. Ez da horrelakorik Toribiorengan. Ikasia da, hainbat hizkuntza dakizki, sozialista... baina euskaltzalea. Bere euskaltzaletasunak ez digu inolako zalan-tzarik eragin behar, euskalgintzan berandu samar hasi bazen ere. Egia esan, 1936 urte arteko garai zail eta maiz iskanbilatsuak ez ziren kulturgintza sakon eta egokia abiarazteko aiproposenak. Eiba-



rren zen bitartean Toribiok ez zuen euskararekiko jakinmin eta interes handirik erakutsi, ziurrenik buruan beste hainbat lan eta kezka zituelako jirabiraka: Alfa, errepublika, sindikalismoa, Campsako lana... Berak aitortzen duen legez, behin jaioterritik urrun, atzerri-ratua dagoela hasi zen euskaraz eta euskararen gainean idazten eta ikertzen, Frantzian lehenengo eta Caracasen gero.

Venezuelako exilioak herrimina eta, batez ere, euskaltzaletasuna berpizteko balio izango du. Horrela, Caracasen, eta gehienbat bere bizitzako azkenengo urteetan, Toribiok euskaraz idazteari ekin zion. Badirudi zahartzaroak piztutako herriminak eta gaztaroko joan-etorrien oroimenak bultzatu zuela euskaraz idaztera, bere herria eta gaztaroko lagunak euskaraz oroitzen baitzituen. Euskararen bidez gertuago nabaritzen zituen. Horrelako zerbait esan nahi ote zigun 1961eko lerro hauekin?²¹

“Esta manía de versificar en euskera en que me he refugiado a la caída de la tarde de mi vida, me parece una locura adecuada a mi edad y fortuna. (...) El euskera en que escribo es la mejor herencia de que dispongo para el telar de mis sueños”

Sasoi horretan, euskalgintzaren munduan murgilduko da. Bere emaztearen laguntza oparoaz, oroitzapenen makina abian jarriko du²². Holan sortuko dira, hainbat eta hainbat lan-orduren ondorio, berak euskaraz idatziko dituen lan nagusiak, *Ibiltarixanak* eta *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*.

Lan bien artean, euskarari egingo dion ekarpen bikainagatik, bigarrenengo hori gailentzen da. Nahiz eta berak azpimarratzen

²¹ *Ibiltarixanak*. Toribio Etxebarria, 1967, Mexiko.

²² *Lexicon* (1966) liburuaaren amaieran (658. orrialdea), eskaintza hau egiten dio bere emazte Claudiari: “Poniendo fin a este trabajo, debo reconocimiento a quien fue mi esposa y hermana (y no pocas veces madre, con ser menor que yo) en todos los caminos de la vida, compartiendo las fatigas, alentando mis afanes y ayudando a la fe que me ha sostenido en el deber y la consecuencia (...). Tenía talento natural de sobra, (...) y tenía además para el caso que nos ocupa, un euskera que le venía de los cuatro costados, memoria musical y una seguridad prosódica que muchas veces me falta a mí. (...) Ahora que descansa en la tierra, lejos del rincón amado en que le hubiera gustado volver con todos los suyos alrededor, quede aquí este recuerdo, para que si algo hubiera que aplaudir en este ensayo o lo que sea, se quede con la parte que le corresponde.”.



digunez exilio bidean ordura arte batutako lana galdu, Lexikoian berba eta esapide andana ederra ageri da, gero hiztegitik ospe-tsuenek erabiliko dutena. Koldo Mitxelena bere *Orotariko Euskal Hiztegian* etengabeko aipamenak jasoko ditu lexikoitik eta beste hainbat filologok ere sarritan goraiatu dute lan honen garrantzia, Arejitak, Mujikak, San Martinek edo Villasantek berak. Izan ere, izenburuari begiraturik herri-hizkera baten hitz-bilduma soila izateko sortu zuen liburua, bere egileak zuen helburu apala baino askoz harantzago heldu zen, bertan azaltzen diren esamoldeak, joserak freskoa eta aditz aberatsa lekuko. Ezin ahanzi, era berean, gaur egun hain arrunta den herri-hizkeren azterketan aintzindari izan genuela Toribio. Bere lana ez zen ilunpean geratuko eta, 1965ean, Eibarko euskararen gainean egindako lan garaua zela eta, Euskaltzaindiak laguntzaile izendatu zuen.



TORIBIO ETXEBARRIAREN LANAK

Badirudi Etxebarriak gehienbat beretzat idazten zuela. Batzuetan denborapasa gisa, beste batzuetan gauzak ez ahazteko edo bere herria oroimenean gordetzeko, sarritan bere ideiak eta pentsamenduak antolatzeke eta argitzeko. Halaxen aitortzen du, behinik behin, apaltasunez, bere liburu gehienen hitzaurreetan. Adibidez, *Tres Ensayos* lanaren hitzaurrean: “*Puesto a sacar a la vergüenza pública los pensamientos que en días perdidos ensayara a poner en el papel, como aliviadero de las horas penosas que el destino (...) puso en los caminos de mi vida, por lo demás insignificante...*”. Edo *Metafísica a Urcola* liburuan; “*El que esto escribe (...) compuso a ratos y a modo de honesto pasatiempo, una especie de ensayo...*”. Eta *Ibiltarixanak* lanaren hitzaurrean: “*...no me ha movido ninguna ambición crematística ni de fama literaria y nadie puede quitarme las horas plácidas que me ha proporcionado el trabajo...*”.

Bere bizitzan zehar zituen tarte hutsak aporobetxatu zituen Etxebarriak liburuak idazteko. *Tres Ensayos*, esate baterako, 1939an Bartzelonan gerran zegoen bitartean idatzi zuen, eta ondoren, Melun-en (Frantzian) lanik gabe igarotako asteetan amaitu eta gainbegiratu zuen. *Metafísica a Urcola* ere, Caracase-ra iritsi eta lana bilatu bitartean idatzi zuen. Gainontzeko liburuak ere antzera.

Lanik gehienen izaera eta egitura ere, gehienetan ez da liburu baten eredu arrunta: olerki solteak, urteetan zehar jasotako anekdoten bildumak, hitzaldiak, diario itxurakoak... Bere asmoa, hasiera batean, ez zen lan horiek argitaratzea. Azkenik, 80 urtera bidean zela hasi zen bere lanak kaleratzen, urteetan zehar txindurrien moduan isilpean baina etenik barik egindako lan ugariak argitaratzen. Eta hiru urtean 6 liburu eta beste hainbat lan kaleratu zituen.



Gerra aurretik argitaratutako lan bakarrak *Centro Obreron* emandako hitzaldi bi dira. Lehenengoa, *Fundamentos científicos del socialismo. Conferencia familiar leída en el Centro Obrero el día 20 de diciembre de 1910 por Toribio Echevarria: primera de la serie organizada por la Juventud Socialista de Eibar*, 1911. urtean Donostiako Antonio Bueno inprimategian argitaratua. Toribio gazteak sozialismoaren jaiotza nola eta zergatik gertatu zen azaltzen du: biologiaren, soziologiaren eta ekonomiaren oinarriak aztertuz, begibistakoa eta naturala da sozialismoa agertzea, gizartean gertatu den prozesu naturalaren ondorio.

Handik urte batzuetara, 1918. urteko azaroaren 25ean Eibarko *Casa del Pueblon* emandako hitzaldi bat oinarri hartuta, Victor Fernandez inprimategian bere bigarren liburuxka kaleratu zuen: *La liga de Naciones y el problema Vasco*. Sortzeaz zegoen Nazioen Liga zeritzana zer zen azaltzen zuen, liga horrek beharko lituzkeen baldintzak, eta batez ere nazionalismoen inguruko hausnarketa sakona egiten du, federalismoaren alde indar handiz eginez.

Madinabeitiaren ildo berekoa da Etxebarria. Foruak babestea eta berrezartzea eskatzen du, eta Euskal Herriaren nortasun berezia azpimarratzen: “*la personalidad del País Vasco está determinada por caracteres diferenciales profundos, de una realidad innegable, como son su lengua, su origen, su tradición foral y sus costumbres*”. Baina euskal arazoa konpontzeko (“*resolver el problema vasco*” aipatzen du berak), ez da horrekin nahikoa izango; subiranotasun politiko osoa behar du Euskal Herriak. Subiranotasuna, baina, ez da independentzia, eta ez du bat egiten abertzaleen ikuspuntuarekin. Bere ustez, ikuspegi sozialistatik aztertzen duenez kontu hori, eta Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko erlazio historiko estua gogoratu, ez du independentzia osoa aldarrikatzen, penintsulako beste herrieekin Konfederazio bat osatzea baizik: *Confederación de Nacionalidades Ibéricas*.

Hala ere, lan horiek ez dira benetan liburu, hitzaldietan oinarritutako liburuxkak baizik. Bere lehenengo liburua 79 urte zituela kaleratu zuen, 1966an: *Metafísica a Urcola*. Etxebarriak Millan Urcola musikari eta grabatzailearekin Iruñeko gartzelan izandako elkarriketetan oinarritutako hausnarketa existentziala da: gizakiaz, iza-



teaz, munduaz... Preso zela idatzia, gerran galdu egin zuen eskuizkribua, eta 1941ean Venezuelara heldu zenean, testu hura berridaztea erabaki zuen. Hilabete inguruan berridatzi zuen gainera liburua, Caracasera 1941eko uztailan iritsi, eta abuzturako amaitua zuelako lana. Carlos Santamariaren hitzak hona ekarriz: “*Echevarría se pone a mirar al mundo, la vida, la historia, y se asoma también al precipicio interior de nuestra ‘nada’ humana, que nunca es suficiente ‘nada’ para que nos deje descansar del todo. Su análisis es profundo, es claro y sobre todo hondamente vivo y humano*”²³. Gartzelan igarotako hilabeteek beregan sortutako galdera existentzialeari erantzuteko grinak bultzatuta borobildutako lana da. Liburu iluna, Iruñeko espetxe-ko zuloa lezkotxea. Bertan, bizitza alaitasun gutxiz eta oinazez josia irudikatzen digu idazleak, gaizkileak garaile ikusten ditu beti eta gizakia sortzez maltzur eta gaizkiegilea dela adierazi.

Hilabete gutxiren buruan, 1966an bertan, beste liburu bi ere argitaratu zituen, biak Mexikon. Batetik, *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* kaleratu zuen, 1958-1959 bitartean idatzitako lana. Izenburuak dioen moduan, sozialismoaren eta gizarte borrokaren historia eta gairik garrantzitsuenak aztertzen ditu, bere ikuspegia eskainiz. Bestetik, *El hijo del hombre. Vida pública de Jesús de Nazaret según los Evangelios* lana ere argitaratu zuen (hau ere urte batzuk lehenago idatzia, 1949an hain zuzen ere). Kasu honetan kristautasuna eta batez ere Espainiako katolizismoa eta elizaren oinarriak aztertzen ditu. Toribio kristaua da, Biblia da bere irakurketa nagusia, baina kritikak egiten dizkio espainolen katolizismoari eta bere ustez kristautasuna eramateko onartezinak diren zenbait jokaerari.

Hortxe, bada, urte berean bere pentsakeraren hiru gai nagusiak beste hainbeste lanetan plazaratuta: filosofia, sozialismoa eta erlijioa. Eta hurrengo urtean, 1967an, hiru gaiak batuko dituen lana argitaratu zuen: *Tres ensayos. Del trabajo, la Sabiduría y la Oración*. Hau ere aurreko guztiak moduan Mexikon argitaratua, Etxebarriaren pentsakera eta mundua ulertzeko modua laburbiltzen duen saiakera da. Beharbada bere filosofia lanik sakon eta

²³ Carlos Santamaria. Diario Vasco, 1967/02/05.



onena, Toribio Etxebarriaren pentsakera ezagutzeko eta ulertzeko ezinbesteko lana, 25 urte lehenago Frantzian idatzitakoa.

Urte berean, 1967an bertan, alegia, Toribioren lanen eta pentsamenduaren beste ardatz nagusia ere aurkituko dugu, euskara eta Eibar: *Ibiltarixanak. Arrate'tikuen izketango alegiñak*. Euskal Herrian argitaratu zuen bakarra, eta euskarazko liburu bakarra, Itxaropena argitaletxeak kaleratu zuen Zarautzen. Idazlearen aginduak jarraituz, 1967ko apirilaren 14an argitaratu zen, Errepublikaren egunean. Bost zati ditu, lehendabiziko laurak olerkiz osatuta eta azkena itzulpenez. Juan San Martinen hitzaurrea dauka. Beste zenbait olerki, ipuin eta itzulpen ere kaleratu zituen, hitz-neurtuz eta hitz-lauz, beste horrenbeste aldizkaritan (*Eusker*a, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Olerti* eta *Eibar*), baina *Ibiltarixanak* da liburu forman argitaratu bakarra. Ziurrenik, baita lanik borobilena ere.

Atal bakoitzeko sarrerak erdaraz egiten ditu, baina gainontzeko guztia euskaraz idatzirik dago, bere herriko azpi-euskalkian, ingurukoetatik oso ekarpen gutxi eginez. Merito izugarria euskaraz alfabetatu gabe egonik eta ia inolako eredu idatzi barik honelako lan bati ekitea eta maila horrekin burutzea. Beharbada, gure azpi-euskalkia ezagutzeko daukagun lanik aukerakoena, hitz lauz idatzitakoa bereziki, bertan lokuzioak, morfosintaxia eta aditz-sistema aberatsago eta gardenago agertzen direlako. Lehen begiratuan *Viaje por el país de los recuerdos* liburuaren euskarazko bertsioztat har dezakegu, herriko gertaeren berri ematen baitigu liburuan zehar. Ikuspegia ezberdina izanik ere, *Ibiltarixanak* liburuan ere herriko gertaerak, pertsonaiak eta pasarteak dira liburuaren mami eta muina.

Liburu horretarako idatzitako olerki batzuk ezin izan ziren orduan argitaratu, batzuk erdi-galduta zituelako egileak eta beste batzuk frankismoaren zentzuragatik. *Ondakiñak* izena jarri zion azken bilduma horri idazleak, eta urte batzuk geroago argitaratu zituen Juan San Martinek *Egan* aldizkariaren XXXVIII. zenbakian, 1979an.

Euskarazko liburu bakarra *Ibiltarixanak* izan arren, hori ez zen bere euskarazko lan bakarra. Bere herriko euskararen inguru-



ko ikerketak, bilketak eta ekarpenak *Euskera* aldizkarian argitaratutako hainbat lantxotan jaso zituen. 1963an *Flexiones verbales de Eibar* kaleratu zuen, Eibarko aditzaren azterketa zehatz eta sakona. Bi urte geroago, 1965ean, bere lanik ezagunena eta lodiena etorri zen: *Lexicón del Euskera dialectal de Eibar*. Bere emazteak lagunduta burutu zuen Eibarren erabiltzen ziren 8.000 berba jasotzeko, aldamenean gaztelerara itzulpena eta adibide bat gehituz. Gaur egun, bi lan handi horiek 1986an argitaratutako (eta 1998an berrargitaratutako) *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* izenburupeko liburuan topatuko ditugu.

Eibarrekiko lotura hori hurrengo liburuan ere aurkituko dugu, *Viaje por el país de los recuerdos*-en. Gazte denborako Eibar gogoratzuz, sasoi horretako argazkia damaigu Toribiok, gatz eta piperrez betea, Eibarrek izan zituen urte zalapartatsu haietako bizipenak, pasarteak, pertsonaiak eta ohiturak zorrotzasun handiz marraztuz. Gerra aurreko Eibarko gizartearen eta eguneroko biziaren argazki ezin zehatzagoa eskaini zigun Etxebarriak.

Liburu hau, tamalez, hil ondoren argitaratu zen, 1968 amaieran. 1989an bigarren argitalpena, Juan San Martinen hitzaurrearekin; eta esku artean duzun hau hirugarrena izango da.

Dena den, *Viaje* askoz lehenago idatzitako lana da, 1949an, eta 1956an gainbegiratua. Hasiera batean, denborapasa gisa osatu zuen lan hori, bere ustez ez zuelako argitaratzeko hainako garrantzirik:

¿Valía la pena ocuparse en recordar estos particularismos que sólo pueden importar a la familia, estas cosas locales que se refieren a un pequeño pueblo perdido en un rincón distante de la tierra, estas nimiedades que a lo sumo gustarán una docena de amigos, que cada año que pasa son menos?

Eskuizkribuak lagun eta senideen artean banatu zituen, eta beraien harrera ona ikusita, 81 urte bete ostean erabaki zuen argitaratzea, 1967ko hondarrean. Ez zuen izan astirik liburua kalean ikusteko: esku artean duzun lan eder hau 1968ko urrian argitaratu zen Mexikon, egilea hil eta lau hilabetera.



Liburuaren helburua, egileak dioskun moduan, xumea da oso, baina garrantzitsua: berak ezagututako Eibar nolakoa zen bere bilobei erakustea. Eibarko historiaren sasoi hori ezagutu eta ulertu nahi duenak liburu honetan aurkituko du horretarako altxor agortezina. Zoragarri azaltzen dizkigu, zehaztasun osoz, Eibarrek eta eibartarrek 1890-1936 bitartean bizi izan zituzten gertaera nagusiak, herriko giroa, zein garai hartako pertsonai ezagunenak. Politika eta gizartea, kultura eta kirola, jaiak eta atsekabeak. Eibarko gizartearen eta bizimoduaren irudi zorrotz eta zehatza da. Gertaera solteen bilduma osatu baino, historia lokala egiten du Etxebarriak.

Ibilarixanak lanaren antzekoa da gai aldetik, baina tratamendua ez da berbera. Hizkuntzak ere sortzen du nolabaiteko ezberdintasuna (erdaraz idatzita egonda, hartzaileak unibertsalagoak izango direlakoan), baina gaiak lantzeko modua ere ez da berdin-berdina. *Ibilarixanak* lan poetikoagoa da, bizitza armonikoagoa azaltzen du, sentiberatasun handiagokoa, liburuan agertzen diren guztiak lagunak edo senideak dira, eta idazlearen barne oinaze eta kezka gehiago azaltzen dizkigu. *Viaje por el País de los Recuerdos*, oster, egiazkoagoa da, zuzenagoa, erreagoa. Gertakizunak nola izan ziren azaltzen du, eta zuzenago azaltzen digu Eibarren zer eta nola bizi izan zituzten XX. mende hasierako urte gora-beheratsu haiek. Liburu honetan gizon gazteago eta ekintzailego baten ideiak eta idazkera aurkituko ditugu (beranduago argitaratua, baina lehenago idatzia da). *Ibilarixanak* liburuan, oster, Toribio nagusia agertuko zaigu, erbestean bizi izatera behartuta herria eta gaztaroa malenkoniaz gogoratzen dituen, oroimenean duen Eibar desagertzekotan dagoela ikusten duen gizona. Eta neurri batean etsituta ikusiko dugu, errealitateak ez duelako gaztaroaren antzik, okerrera egin duelako Eibarrek, eibartarren arteko bizimoduak, herri inguruko naturak eta berak horrenbeste maite duen euskarak. Hala eta guztiz ere, bietan jorratzen dituen gaiak antzekoak dira. *Ibilarixanak* lanean denbora, erlijioa eta gai existentzialak ere ikutzen dituen arren, batean zein bestean herrimina, gaztaroko ipuinak, euskara eta Eibar agertuko zaizkigu behin eta berriro berebiziko indarrez.

Azken urteotan ere argitaratu dira bere beste liburu bi; egileak berak argitaratu barik lagatako lan bi. 1991an Eibarko udalak *Epistolario* 1941-1946 liburua argitaratu zuen, Indalecio Prietoren



IMPRESIONES MODERNAS, S.A.
FÉLIX MIGUÉLEZ L. PRESIDENTE JULIÁN LARA C. GERENTE

LIBROS DE MEDICINA Y REVISTAS DE CALIDAD
TRABAJOS DE OFFSET, PARA LA BANCA, COMERCIO E INDUSTRIA

SEVILLA 981 Esp. con Edificio España (Ed. Portales) TELEFONO 18-41-01

MEXICO 12, D. F.
10 de Abril de 1948

Sr. D. Toribio Echevarria
CIBACIAS


Estimado amigo :

Hay recibo los originales de su libro "Viaje por el pais de los recuerdos" cuyo envio me anunciaba por su carta de fecha 1 del actual. He procedido a estudiar la mejor presentacion y tamaño ademas del libro, teniendo en cuenta el número de páginas y mis calculos son los siguientes:

500 ejemplares del libro "Viaje por el pais de los recuerdos" compuesto de 400 paginas aproximadamente, tamaño de pagina 32½ x 15, mancha de página 28 x 4½ cuadratinas, tipos de 10/12 puntos Times Manual; impresion a 1 tinta en papel Chebece de 57 kilos y forros en cartulina impresos a 2 tintas; encuadernacion a la rústica con costura de hilo en \$ 18.750.00 M.N. (equivale a Dolares U.S. 1.500,00) es decir cada ejemplar tiene un costo de TREIS Dolares U.S.

El tamaño del libro es proporcionado, creo resultara muy atractivo y sale un poco caro por la pequeña cantidad de impresion, por ejemplo haciendo 1.000 ejemplares el costo total seria de \$ 21.00 es decir cada libro saldria a Dolares 1.84 cada uno. Pero comprendo que no tiene caso tampoco hacer una edición para tenerla guardada y supongo que los 500 ejemplares son suficientes. No he tenido tiempo de leer el original, pues supongo su impaciencia por tener noticias mias y me apresuro a escribirle rapidamente, de todos modos lo correjiré personalmente y enviare a Ud. pruebas finas para una revisión final por parte de Ud. Si tiene alguna idea para la portada mucho le agradeceré me lo haga saber.

Anticipadamente le envio mi felicitacion por su proximo cumpleaños -el año pasado tuve el gusto de pasarle con Uds.- y con saludos para la familia y amigos quedo al pendiente de sus siempre gratas noticias affms. ss. y amigo



Impresiones Modernas SAK "Viaje" argitaratzeko T. Etxebarriari bidalitako edizio-irizpideak eta aurrekontuak.



eta Toribio Etxebarriaren arteko gutun-trukea. Lanak Juan Pablo Fusiren hitzaurrea dauka.

Urtebete beranduago, Donostian eta *La Cultura del Exilio Vasco* saileko 7. zenbakian, *Recordando la guerra. Diario de viaje de un refugiado español* lana argitaratu zen. Izatez bi liburu dira, baina bakarrean batuta eta Luis Castellessen hitzaurrearekin kale-ratu ziren. Diario formatoan idatzita, lehenengo zatian gerra zibilean gertatu zitzaizkion gora-beherak kontatzen dizkigu egileak, 1936ko altxamenduan hasi eta 1941ean Caracasera heldu bitartekoak. Bere bizipenak ardatz hartuta, gerrari buruzko gogoetak eta hausnarketak plazaratzen ditu. Bigarren zatian, aldiz, 1941ean Frantziatik Caracasera bidean bizitakoak azaltzen dizkigu: martxoaren 24an Marsellan itsasuntzia hartu zuenetik, uztailaren 8an Caracasera heldu artekoak.

Lan mardula eibartar idazleak laga ziguna: 9 liburu eta kolaborazio ugari hainbat aldizkaritan: *El Socialista*, *Egan*, *Olerti*, *Eibar*, *Euskera*, *Euzko-gogoa*, eta abar. Lan ugaria, gehienbat kon-tuan izanda bere bizitza zer nolakoa izan zen. Alfako lanak, udal-tereko betebeharrak, alderdi barruan izan zituen erantzukizunak eta gerrako ibilerek denbora asko kendu zioten Toribiori, eta idaztea zaletasun hutsa besterik ez zen, zereginik ez zuenean ordu batzuk igarotzeko eta bere oroipenak atontzeko zerabilen zaletasuna. Hala izan ez balitz, oraindik eta lan zabalagoa izango genukeen esku artean. Badirudi, gainera, gure eskuetara heldu ez den beste liburu-uren bat ere idatzi zuela. *Metafísica a Urcola* lanaren hitzaurrean dioskunez²⁴, gerratean Eibartik irten eta Caracasera heldu arteko 5 urte horietako joan-etorrietan beste hainbat eskuizkribu ere galdu zituen. Sekula ez dugu jakingo, horretara, Etxebarriak hor zehar laga zizkigun beste zenbait altxor zeintzuk izan ziren.

²⁴ “Otros trabajos por el estilo también andan perdidos por obra del mismo azar, pero ni los recuerdo ni me importan.” (*Metafísica a Urcola*, 1966).



Erreferentzia bibliografikoak

- Castells, L. 1992. Hitzaurrea in *Recordando la guerra. Diario de un refugiado español*. Toribio Echevarria. J.A. Ascunce, Donostia.
- Egiguren, J. 1994. *El socialismo y la izquierda vasca 1886-1994*. Madril: Ed. Pablo Iglesias. <http://www.eibar.org/materixala/pse.html>
- ‘Eibartarren Ahotan’ ahozko artxiboa. Eibarko Udal Artxiboa. [http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Ikerketak/Eibartarren Ahotan](http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Ikerketak/Eibartarren_Ahotan)
- Fusi, J.P. 1991. Hitzaurrea in *Epistolario: 1941-1946*. Indalecio Prieto, Toribio Echevarria. Ego Ibarra, Eibar.
- Gutierrez, J. 2001. *La insurrección de Octubre de 1934 y la II República en Eibar*. Ego Ibarra, Eibarko Udala. [http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Argitalpenak/Online Edizioak/Insurreccion](http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Argitalpenak/Online_Edizioak/Insurreccion)
- Murua, I. *Juan San Martini elkarrizketa*. Jakin, 1998 (108): 67-116. <http://www.eibar.org/materixala/jsm.html>
- Narbaiza, A. 1998. *Eibarko Euskara: Gutxiespenaren Historia*. Euskara Batzordea, Eibarko Udala, Eibar. [http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Argitalpenak/Online Edizioak/Eibarko euskara](http://www.egoibarra.com/Egoibarra/Argitalpenak/Online_Edizioak/Eibarko_euskara)
- Narbaiza, A. 1999. *Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968)*. Vitoria-Gasteiz; Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (“Bidegileak, 17”). [http://www1.euskadi.net/euskara sustapena/bidegileak/datos/etxebar.pdf](http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/etxebar.pdf)
- Narbaiza, O. eta O. Araolaza. 1993. *1934ko urriaren 5eko iraultza Eibarren*. <http://www.geocities.com/Paris/Cafe/5812/1934koa.html>
- Paul Arzak, J.I. 1978. *Eibarko sozialismoa*. L. Haranburu editorea, Kriseilu, Donostia.
- Santamaria, C. *Metafisica a Urcola*. Diario Vasco, 1967/02/05. <http://www.gipuzkoakultura.net/euskera/ediciones/stmaria/kazeta/k670205d.htm>
- Santamaria, C. *Un viejo luchador*. Diario Vasco, 1968/04/28. <http://www.gipuzkoakultura.net/euskera/ediciones/stmaria/kazeta/k680428d.htm>
- Zelaia, P. 1994. *Eibarko historiaren laburpena*. “... eta kitto!” Euskara Elkartea, Eibar.



